

Ostirala
2018ko abuztuaren 3a
IX. urtea
364. zenbakia

www.nafarroa.hitza.eus
nafarroa@hitza.eus

4 Migrazioa Uztailetik martxan da Lindus 2 proiektua, Auritzen, hegaztiei eta saguzarrei behatzeko

5 Harresien Jaialdia Dantzak, musikak eta antzerkiak hartuko dute Ziadadela, hilaren 22ra bitarte

NAFARROAKO HITZA

Gernika batailoiko azkena



NAFARROAKO HITZA

Berako Udalak omenaldia egin dio Paco Perez Lusarretari • Jaurrietan jaio zen, 1922an; Bartzelonan eman zuen 1936ko gerra; gero, Gernika batailoiko kide izan zen • Berako zahar etxea du bititoki • **2-3**



Nafarroako Hitza^{ak} udako oporrak hartuko ditu, eta abuztuan ez da gehiago argitaratuko. Hurrengo zenbakia irailaren 7an publikatuko da, eta, ordutik aurrera, astero izango da eskuragarri, BERRIAREKIN eta kioskoetan.



Memoria historikoa izan da Berako besten hasierako protagonista: 1936ko errepresioa jasan zutenak eta haien ondorengoak omendu dituzte. Herritarren aitortza jaso du Paco Perez Lusarretak ere, Gernika batailoiko azken gudariak. Jaurrietan jaio zen, 1922an, eta Berako zahar etxea du orain bizitoki.

Orduko usteaz eta indarraz

Edurne Elizondo Bera

Francisco Perez Lusarretak 96 urte bete zituen asteazkenean. «Erran ieza dazazu Paco, mesedez!», eska du, irribarre eginez. Atzo jaso zuen Berako Udalaren oparia: omenaldia egin zioten, Gernika batailoiko kide izan zela gogoratzeko. Nazien aurka borrokatu zen, II. Mundu Gerran. «Batailoiko azkena naiz, bizirik gelditzen den bakarra. Etxekoan artean ere, azkena». Duela sei hilabete hil zuen Maria Luisa Agirre, Perez Lusarretaren emaztea, eta, geroztik, Berako zahar etxean bizi da gudari ohia. Jaurrietan jaio zen, 1922. urtean.

Jada ez du gazte garaiko gorputza, eta makilaren laguntza behar du mugitzeko; burua, ordea, beti

bezain argia du, eta 1940ko hamarkadako usteaz eta indarraz mintzatzen da, oraindik ere. Errepublikak maite zuen Manuela Lusarreta bere ama ekarri du gogorra; gerra garaian lagun izandako Asta txakurra ere bai; anaia eta arreba txikia; gerran galdutako lagunak. «Atzetik heldu zirentzat ispilu izan nahi genuen orduan», nabarmendu du.

Ispilu horri egin nahi izan dio so Berako Udalak aurtengo besten hasieran, hain zuzen ere. Memoria historikoaren ispiluari, alegia. Perez Lusarreta omendu du horretarako, bai eta herrian 1936ko errepresioa sufritu zutenak eta haien ondorengoak ere. Altxamendu militarra gertatu eta gero, urte hartako zitailaren 21ean sartu ziren erreketek Beran. Ordu-rako, jada, herritik at ziren frankistekin bat egin ez zuten hainbat herritar eta karabinero. Erreketek

ez ez zuten amore eman: 1936ko San Esteban egunean, gaurko egunez duela 82 urte, ihes egindako horien familiak eraman zituzten Udaletxeko plazara. «Gipuzkoara, Frantziara, edo fusilatze-ra», mehatxu egin zieten.

Ehun familia inguru bota zituzten herritik, eta gutxi batzuk baino ezin izan ziren itzuli. Ihes egiteko aukera izan ez zutenak fusilatu egin zituzten. Seiren gorpuak identifikatu zituzten; bertze lau desagertuta daude, oraindik ere.

Irundik Bartzelonara

Jaurrietan jaio, baina Irunera (Gipuzkoa) mugitu zen Perez Lusarreta familiarekin, haurtzaroan. Han harrapatu zituen 1936ko altxamenduak. «Gure familia errepublikazalea zen. Aita, karabineroa. Anaia zaharreakin joan zen gerrara, frankisten aurka borrokatzen. Bertze bi anaiekin, arre-

batxoarekin eta amarekin gelditu nintzen ni». Manuela Lusarretak Bartzelonara egin zuen ihes seme-alabekin, eta han gelditu ziren, gerra amaitu arte. «Gogorra izan zen. Irunera itzuli ginenean, dena kendu ziguten. Deus gabe utzi gintuzten. Frankistentzat, gu, errepublikazaleok, zaborra ginenean, eta halaxe tratatu gintuzten».

Perez Lusarretaren aita Marcelino Perez preso hartu zuten. «Anaia zaharra ere bai. Aita Bilbon espetxeratu zuten; anaia, berri, Santoñan». Ordukoak gogoratu dituenean, begirada ilundu zaito Perez Lusarretari. Amaren saminarekin oroitu denean, batez ere. «Nire ama emakume zoragarria zen, aparta benetan. Ama beti dut buruan; izugarri maite nuen». Harengandik jaso zituen bizitza osoan ardatz izan dituen balioak. Eta balio horiek eraman

zuten Perez Lusarreta nazien aurka borrokatzen. «Ezin nuen deus egin gabe gelditu. Amak beti erran zuen borrokalaria sutua nintzela ni; mundua aldatzeko lanean ari nintzela. Harro zegoen, eta harro sentiarazi nahi nuen».

Soldaduska egiten ari zenean etxera itzultzeko eman zioten baimen bat baliatu zuen Perez Lusarretak muga zeharkatzeko eta Gernika batailoiarekin bat egiteko. Bidea ez zen erraza izan, halere. «Lehenik eta behin, Baionara joan nintzen. Atxilotu egin ninduten. Aske utzi ninduten kostaldeko bunkerrak eraikitzen laguntzera joan nintzela erran nuelako. Sinetsi egin zidaten».

Perez Lusarretak Paue izan zuen hurrengo helmuga, Okzitania. «Han egin genuen bat 150 gudari inguruk; han mamitu zen Gernika batailoia». Bordele inguruan ikusi zituen lehendabiziko



naziak. «Han egin nuen borroka lehen aldiz; eta han galdu nituen lehen lagunak».

Gerrari buruz, gizakien alderdirik ilunena agerian uzten duela erran du Perez Lusarretak. «Gerrara joaten zara, eta badakizu hil egin behar duzula, zu hil ez zaitzaten. Alemaniarrak gazteak ziren, gu bezala. Baina argi genuen nazismoaren kontra ari ginela borrokan». Tristuraz gogoratu ditu hainbat une: «Ez zen atsegina ikustea frantziarrek mendean hartutako etsiak kolpatzen zituztela. Biziki krudelak iruditzen zitzaizkidan halako egoerak. Mendean hartutakoa ezin duzu kolpeka tratatu. Balio batzuen alde ari ginen borrokan, baina gerrak halakoak eragiten zituen».

Bordeletik Paris aldera eraman zuten Perez Lusarreta, batailoiko bertze hainbat kideekin. «Paristik 50 kilometro ingurura zegoen jauregi batera eraman gintuzten; Rothschild familiarena zen. Han, mota guztietako armekin aritzen erakutsi ziguten. Magnum eta Colt etxeko errebolberrak eman zizkiguten. Sekulakoak ginela sentitzen genuen han!».

Armeekin baino gehiago, halere, Gernika batailoiko kideekin eta orduan ezagutu zuen Asfa txakur-rarekin oroitzen da gudari ohia. «Batailoiko kideon artean, harremana ezin hobea zen. Talde bat osatzen genuen; justiziaren alde egiteko gogo berak batzen gintuen». Bereziki hunkitu da, halere, txakurrari buruz hitz egiten hasi denean. «Hain zen berzea! Laguna nuen, benetako laguna! Lubakian hotzak harrapatzen ninduenen, nire ondoan jartzen zen, berotzeko». Kumeak izan zituenean, lagun baten etxean uztea erabaki zuen. «Harekin hobeki ziren. Baina ez dut inoiz ahaz-



tuko eman zidan guztia», erran du, begiak erdi bustita.

II. Mundu Gerra amaituta, Euskal Herrira itzuli zen Perez Lusarreta, Hendaia. Irunen bizi zen, orduan, gudari ohiaren familia. «Aita, ama eta arrea ziren etxean. Anaia zaharra hilik zen ordu-rako. Bertze bi anaiak, berriz, hemendik kanpo: bat Afrikan, eta, bertze, berriz, Frantziako konzentrazio esparru batean». Familia laguntzea bilakatu zen Perez Lusarretaren helburu bakar eta nagusi. «Bazterrak ongi eza-gutzen nituen, eta baliatzea erabaki nuen. Kontrabandista bilakatu ote nintzen? Bai, pixka bat», erantzun du, begiarekin kliska eginez.

Perez Lusarretak gogoratu du ehunak mugitzen zituztela, batez ere. Oroitu da Hernanitik Donibane Lohizunera eta, Bidasoko ibietan barrena, Enderlatsatik Plaiaundira egindako bidaiekin. «Frankismoak mehatxu egindako hainbat herritar ere lagundu nituen muga zeharkatzen», erantsi du. Ibardinen harrapatu-

zuten arte. «Egun hartan hiru ginen; ni nintzen lehena. Batek ihes egitea lortu zuen, eta bertze biok hartu gintuzten». Ibardindik Irungo polizia etxera eraman zuten, eta, han, Meliton Manzanas zuen zain. «Torturatzailea zen, gizon krudela. Zortzi edo hamar egunetz izan nintzen han. Onik atera nintzen. Ondarretako espetxera eraman ninduten handik. Kartzelatik atera ninduten, azkenean, Euskal Herritik kanpora bidaltzeko». Sorterrian egoteko debekuak Bartzelonara bueltan eraman zuten Perez Lusarreta.

Bartzelonatik Irunera

Tailer batean hasi zen Bartzelonan lanean. «Mekanikari ona izan naiz beti. Haur bat bertzerik ez nintzenean ere, niri ez zitzaieran auto bat gidatzea interesatzen; autoa nola mugitzen zen jakin nahi nuen. Trebea nintzen». Osasun arazoan ondorioz utzi behar izan zuen lana. Ebakuntza egin, eta giltzurrun bat kendu behar izan zioten. Etxera itzultzea erabaki zuen Perez Lusarretak,

1 **Beran.** Duela sei hilabete ailegatu zen Paco Perez Lusarretak Berako zahar etxera, emaztea hil eta gero.

2 **Agiria.** Frantziako Gobernuak emandako agiria, Perez Lusarreta nazien aurka aritu zela aitortzen duena.

3 **Emaztearekin.** Perez Lusarreta Maria Luisa Agirre emaztearekin.

4 **Omenaldia Bordelen.** Perez Lusarreta, ezkerrean, Iñigo Urkullu Jaurilaritzako lehendakariarekin.

ARGAZKIAK: NAFARROAKO HITZA ETA UTZITAKOAK

orduan. «Kamioilari bati galdetu, eta, baietz, eramanen ninduela Donostiara. Horrelaxe joan nintzen etxera bueltan», gogoratu du.

Irunen, familiarekin egin zuen bat, berriz ere. «Auto zahar bat erosi, hura moldatu, eta garraio-lari hasi nintzen lanean». Erretiroa hartu arte. Maria Luisa Agirre izan du bizikide, duela sei hilabete hil zen arte. Anai-arrebei ere agur erran behar izan die gudari ohiak. «Gogorra da. Baionan bizi zen anaietako bat. Minbiziak hartu zuen. Ebakuntza egin zioten, baina ez zuen sendabiderik. Hura ikustera joan nintzen azken aldia, argi eta garbi erran zidan hura izanzen zela elkar ikusiko genuen azkena. Handik gutxira hil zen. Kolpe latza hartu nuen».

Eskuarekin egindako keinu baten bidez uxatu du tristura Perez Lusarretak. Irribarrea jantzi du, berriz ere. Badu damurik, halere: «Mundu hobe baten alde egin genuen borroka, baina ahaztu egin gaituzte; baztertu egin gaituzte». Ez du maite egungo gizartearen berekoikeria. «Non daude gure garaioko balioak? Mingarria da dena ahaztu izana. Bertzeentzat ispilu izan nahi genuen», berretsi du, orduko usteaz eta indarrak.



Amak beti erran zuen borrokalari sutsua nintzela, mundua aldatzeko lanean ari nintzela»

«Mota guztietako armekin aritzen erakutsi ziguten; sekulakoak ginela sentitzen genuen han!»

«Non daude orduko balioak? Mingarria da dena ahaztu izana; bertzeentzat ispilu izan nahi genuen»

Paco Perez Lusarreta
Gernika batailoiko kide ohia



Hogei pertsona inguru ari dira, egunotan, Lindus gaineko zeruari behatzen. Azaroaren 15ean amaituko da aurtengo kanpaina. GABI BERASATEGI

Lindus 2 proiektuaren hirugarren sasoa martxan da, uztailetik. Pirinioak izen bereko tontorretik zeharkatzen dituzten hegaztiei behatuko diete, azaroaren 15era bitarte.

Kurriloek negua ekarri arte

Edurne Elizondo Iruñea

Miru beltzekin eta sorbeltzekin hasi, eta kurriloekin bukatu. Denborak txori izena du Aurizko Lindus tontorrean, ehunka mila baitira Pirinioak zeharkatzeko toki hori aukeratzaren dute hegazti migratzaileak. Haiei so dira, uztailetik, Lindus 2 proiektuko kideak, egitasmo horren hirugarren sasoiaren.

LPO eta SEO Birdlife elkarteek, Aurizko Udalak eta Nafarroako Gobernuak egin dute bat Lindus 2 proiektuan. Gobernuaren izenean, Ornitolan etxeko kideak ari dira hegaztien bideari behatzen. Miru beltzei eta sorbeltzei egin zieten ongi etorria uztailearen erdialdean, eta kurriloek negua ekartzen dutenean itxiko dute aurtengo kanpaina, azaroaren erdialdean. Ordura arte, 80 espezie inguruko hegaztiak pasako dira Lindus tontor gainetik, hegoaldera bidean.

«Lindus 2 proiektuak hiru hanka ditu: zientzia, ekoturismoa eta formakuntza. Hiru arlo horiek jorratzen ahal ditugu hegazti mi-



Hegaztiei so egiteaz gain, pasaiaz gozatzeko aukera ere bada. GONZALO DEAN

gratzaileei so», erran du Ornitolan etxeko arduradun Gabi Berasategik.

«Lehenik, hegazti migratzailei behatuz datuak lor daitezkeelako haien populazioei eta klimaren aldaketak haiengan duen eraginari buruz, bertzeak bertze; bigarrenik, gero eta gehiago direlako ornitologiak erakarritako bisitariak; hirugarrenik, hegaztiei

toki ezin aproposagoan behatzeko eta ikasteko aukera eskaintzen duelako Lindusek», azaldu du.

Ornitolan etxea 2009. urtetik ari da Lindusen lanean. 2010ean, Lindus 1 proiektua sortu zuten, jasotako datuak Nafarroako Gobernuaren esku jartzeko. Bertze urrats bat egin zuten Lindus 2 proiektuarekin: kide gehiago hartu dituzte egitasmoan, eta he-

gaztiei so egiteaz gain, turismoa bultzatzeko ere bertze hainbat egitasmo jarri dituzte martxan. Zientziaren arloan, gainera, hegaztiei so egin ez ezik, saguzarrei behatzen ere hasi dira. Zehazki, Juan Tomas Alcalde aditua ari da Lindus 2 proiektuan. Egitasmo horren barruan lortutako hasierako datuek agerian utzi dute, adibidez, Baztango muinoak aukeratzeko dituzten saguzar anitzek beren migrazioan. Europako ipar eta erdialdetik eremu epelagoen bila gurutzatzen dituzte Pirinioak animalioak.

650.000 hegazti 2017an

Hegaztiei ere giro epelagoak bilatzen dituzte hegoaldera bidean; bai eta zer jan ere. Iaz, 650.000 hegazti migratzaile zenbatu zituzten Pirinioetako tontorretan diren behatzaileek. Haietako ia 328.000 pasatu ziren Lindusko tontor gainetik. 2016. urtean, berriz, 83 espezieetako 400.000 izan ziren.

Europako hegazti migratzaileen %90 pasatzen dira Lindus gainetik, hain zuzen ere. Horrek haiei so egiteko toki ezin hobe bilakatzen du Aurizko tontorra.

Eguzkia atera bezain pronto hasten dira ornitologoak lanean, eta eguzkia sartu arte aritzen dira, eguraldiak zeruari so egiteko aukera ematen badie behintzat, zeren, lainoa sartzen denean, teleskopioek eta prismatikoek ez baitute deustarako balio.

LPO eta SEO Birdlife elkarteek, Aurizko Udalak eta Nafarroako Gobernuak egin dute bat Lindus 2 proiektuan

Saguzarren migrazioari ere behatzen diote Lindus 2 egitasmoan; Juan Tomas Alcalde aditua ari da lanean

Eguraldia lagun, ordea, Lindusko tontorraren orografiak mesede egiten dio zeruari so dagoen ornitologoari. «Teleskopioarekin, puntu bat direnetik buru gainean ditugun arte jarraitzen ahal diogu hegaztien bideari. Gertutik pasatzen dira, eta horrek aukera ematen digu datu anitz jasotzeko», azaldu du Berasategik. «Hasiberrirentzat, ikasteko toki ezin aproposagoa da», gaineratu du Ornitolan etxeko arduradunak.

Miru beltzak, sorbeltzak, miru gorriak, zikoinak, zapelatz litzorjaleak, pagausoak... luzea da Lindusko tontorretik ikus daitezkeen espezieen zerrenda. Iruñetik gertu dago, eta horrek erakargarri bilakatzen du hegaztiei so gozatu nahi duten guztientzat. Nafarroan gora egin du zaletasunak azken urteotan, hain zuzen ere. «Lindusko tontorrak ikuskizun ederra eskaintzen du», berretsi du Berasategik. Hainbat data buruan ditu: 2016ko urriaren 9an, adibidez, ia 500 miru gorri ikusi zituzten Lindusen; hilabete bereko 29an, berriz, 123.000 pagauso.

Aurtengo kanpainaren hasieran ere izan dute hegaztien migrazioaren ikuskizunarekin gozatzeko aukera Aurizko tontorrean: uztailearen 29an, adibidez, ia 1.000 miru beltz pasatu ziren Lindusko tontor gainetik.

Aurtengo kanpaina hasi bertzerik ez dute egin Lindusko tontorrean lanean ari diren ornitologoek. Hogei pertsona inguru dira, denera. Txandaka antolatzen dira, handik pasatzen diren hegazti guztiei so egin ahal izateko. Azaroaren 15era arte egonen dira Auritzen. Kurriloek negua ekartzen duten arte. Bitartean, prismatikoak eta teleskopioak zerura begira izanen dira Lindusen.



La Glo Zirkon konpainiako kideek dantza egingen dute harresietako paretan gainean. IRUÑEKO UDALA

Harresietako Jaialdia egingen dute Iruñean, hirugarrenez, hilaren 22ra bitarte. Creacity proiektuko ekitaldi bat da, eta musika, antzerki eta dantza ikuskizunak eskainiko ditu. Ziadadela bilakatuko da agertoki nagusi.

Harri arteko gau eta ikuskizunak

Eduarne Elizondo Iruñea

Ezohiko gauak ekarriko ditu Iruñeko abuztuak: harri artekoak izanen dira, Harresietako Jaialdiari esker. Iruñeko Udalak antolatuko du zirkoa, hirugarrenez, Creacity proiektuaren barruan. Iruñeko, Baionako eta Hondarribiko gotorlekuei balio kulturala eta turistikoa emateko helburua duen egitasmoa da Creacity. Ziadadela izanen du agertoki nagusi, baina jaialdiak Iruñeko bertze hainbat auzotara ere eramanez ditu musika, dantza eta antzerkia, atzo hasi eta hilaren 22ra bitarte. 164.000 euroko aurrekontua du aurtengo programak. <http://www.pamplonaescultura.es/eu/events/festival-de-las-murallas-2018/> helbidean dago jasota.

«Jaialdi askotariko bat prestatu nahi izan dugu, mota guztiatarako publikoek izan dezaten aukera gustuko zerbaite aurkitzeko», nabarmendu du Iruñeko Udaleko

Kultura zinegotzi Maider Belokik. Sail bereko zuzendari Maitena Muruzabalek erantsi du Udalak helburu hartu duela «arteak harri-kara eta pertsonengana hurbiltzea». Jaialdiak, zehazki, Ziadadela, Guadalupeko gotorlekua, hiriko harresiak eta O plaza bilakatuko ditu bere agertoki. Ikuskizun guztiak doan izanen dira. «Bereziak izanen dira abuztuko ilunabar eta gauak», berretsi dute udaleko arduradunek. Ezohiko gauak Iruñeko abuztuan.

Diziplina anitz

Ziadadela, hainbat diziplina uzartuko dituzten ikuskizunak izanen dira nagusi. Musiak, dantzak, kale antzerkiak eta zirkuak egingen dute bat. Gisa horretako proposamena aurkeztuko du, adibidez, Shakti Olaizolak: *Baldin Bada* izenburuko lana eskainiko du asteartean. Egun berean, Enkore musika taldea ariko da espazio horretan. Asteazkenean, berriz, Christophe Pavia artista eta Melanie Spettel dantzaria ariko

dira, elkarrekin, *Mysterieuses coiffures* izenburuko performancean. Amer y Africa taldeak *Enva* eskainiko du, eta, Lazy Daisy Band taldeak, berriz, kontzertua.

Ostegunean, Dj Momek hartuko du agertokia, eta Nueveuno taldeak, berriz, zirkuak eta dantza uzartuko ditu *Sinergia 3.0* izenburuko lanean. Hilaren 14an,

Zaldi Zurian eta O plazan ere egingen dituzte dantza emanaldiak eta musika kontzertuak

Flamenco on Fire jaialdiak emakumeak izanen ditu protagonista nagusi; hilaren 22an, Estrella Morente ariko da

Traspediante konpainia ariko da Ziadadela, batetik; bertetik, Anne Etxegoien musikariak emanaldia eskainiko du. Akrobaziak egiten duten trebezia erakutsiko dute The Black Blues Brothers taldeko kideek, hilaren 15ean; bihar, ramunean, Up Arte taldekoak izanen dira agertokian. Musika,

berriz, Zenet taldeak eskainiko du.

Hilaren 18koa zonzien gaua izanen da. Hamabi eta hamazazpi urte bitarteko gazteentzat *scape room* berezia antolatu du udalak, zonzbiak protagonista bilakatuta. Dantza bilakatuko du protagonista Maduixak, hilaren 21ean, eta, 22an, azkenik, Cirque Rouages konpainiaren ikuskizunak itxiko du jaialdia, Ziadadela.

Guadalupeko harresian dantza bertikala izanen da protagonista, La Glo Zirkon eta La Banda konpainien eskutik. Gaur ariko dira, 21:00etatik aurrera. Hilaren 10ean, La Banda

errepikatuko du, eta Compagnia dei Folli ere ariko da. Hilaren 17an, berriz, Linea d'Aria, eta La Banda, hirugarrenez. Zaldi Zurian ere dantzak hartuko ditu txokoak, Carmen Larrazen zuzendaritzapean. O plazan, berriz, kale antzerkiak, dantzak eta musikaz gozatzeko aukera izanen da,

bertzeak bertze, Arantxa Villanuevaren konpainiaren eta Lindy Hop taldearen eskutik.

Flamenco jaialdia

Harri arteko ikuskizunak ez dira Iruñeko abuztua berezi bilakatuko duten bakarrik: hilaren 21etik 26ra, Flamenco on Fire jaialdia egingen dute, bosgarrenez, izen bereko fundazioak antolatuta, Nafarroako Gobernuaren eta Iruñeko Udalaren laguntzarekin, bertzeak bertze. Kontzertuak, hitzaldiak, liburu aurkezpenak eta bertze izanen ditu Iruñeko flamenco jaialdiak. Aurtun, emakumeak omendu nahi ditu. Programa www.flamencoconfire.org helbidean dago.

Baluarteko oholtza izanen dira, bertzeak bertze, Mayte Martin, Belen Maya eta Estrella Morente; Martin eta Maya hilaren 21ean izanen dira Iruñean; Morente, berriz, 22an. 24an, kontzertu berezi bat hartuko du agertoki horrek: Tomatito gitarra jotzaileak eskainiko du, Nafarroako Orkestra Sinfonikoarekin batera.

Gora!

Festen hasierak beti izaten dira zirrarak, nerbioak eta bizipoza. Baina batzuei kostatzen zaie aldaketa batzuk bizi behar izatea. Kostatu baino gehiago, amorratuta daude eremu guztietako jauntxoak ez direla konturatzen ari direlako. Eta zarata egiteko aitzakiak behar dituzte, udan ere polemikaren bat egon dadin. Adibidez: euskara. Adibidez: festen «politizazioa».

«Gora Tuter!» oihukatu zuen jendez lepo betetako plazan. Eta, egia esan, bi gaiak lotzeko aukera paregabea iruditu zitzaizkien jauntxoak. Euskaraz zehazki bi hitz (Gora Tuter, Gora Santa Ana) oihukatu zituen. Nahiago dut ez errepikatu esan izan zirenak.

Hain dira handiak euskarak dituen oztopoak, ezen «Gora!» horiek txistuak jaso zituzten plazan zegoen jendearengandik. Ez dezagun ahaztu non gauden eta guretzat sinbolikoa besterik ez dena (eta askorentzat ez nahikoa, eta ez laikoa, eta ez...) guztiz apurtzailea dela beste batzuentzat, eta ukatu eta errefusatu ere egiten dela.

Aldaketaz ari garela, gu ere askotan ez garela ohartzen ematen du, baina sinbolo txikiak zer nolako garrantzia duten gogoratu beharko genuke. Tuteran uztailearen 24an, urteko egunik garrantzitsuenetakoan, emakume gazte eta euskaldun batek txupinazoa botatzea eta euskaraz ere (lehenbiziko aldiz) egitea handia da.



HURBILDU ETA LAU
Lur Albizu Etxetxia

Handia da, euskarak muga sinbolikoa bezain garrantzitsu bat apurtu delako. Aurrekaria badago, ezinen da esan inoiz ez dela egin.

Harroak dira, eta Tuteran ere euskara entzun delako amorratuta daudelako. Haiertzat ere muga sinbolikoa bat apurtu egin delako. Eta ezin dute aguantatu. Ezin dute aguantatu gaztelaniaren ondoan euskara ikustea, prestigioa duen momentu batean. Benetan *navarrrísimo*-a dena espainola delako, ez besterik. Erdara, «politizatu» gabeko festetan. Haiak ez dutelako festarik politizatzen, eta txistu egin zutenek ez dutelako Espainiako banderarik eramaten plazara. Hori ez da politizazioa, hori besterik gabe *normala* da. Haien norma jarraitzen duena.

Muga bat gainditu da; baina konturatzen ari gara zein bide dugun aurretik? Hartuko diogu tamaina erronka izugarri honi? Euskarak bultzada izugarria beharko du aurrera egiten jarraitu ahal izateko. Eta hori eremu guz-

tietan egitea komeni da: kalean, instituzioetan, tabernetan, ikastolan, eskoletan, euskaltegietan, txupinazoetan, eremu sinbolikoan. Bide horretan, behingoz eta behin betiko euskarak behar duen babesa ofizialtasunaren bidez baino ezinez du egin esparru batzuetan. Baita txistuen gainetik ere.

Euskara herrigintza delako, eraikuntza eta transgresioa. Euskara aldaketa da. Erdaldeketa, mundua ikusteko beste modu bat (munduko beste hizkuntza guztiak bezala; ez gehiago, baina ezta gutxiago ere). Euskara transgresioa ere bada. Eta herria eraikitzea, eguneko egun eta pausoz pauso. Batzuetan ahazten bazaigu ere. Eta ni... ni uztailearen 24an *pozez* zorratzen nengoen. Mila esker, Edurne!

«Hizkuntza inportantea baita batez ere esateko zer bait dagoen. Elebakar harro, gu baino gehiago dura lex, dura lex, dura lex... sed lex».

Euskara herrigintza delako, eraikuntza eta transgresioa

Irudia • Iruñea



Auzitegi Konstituzionalak bertan behera utzi du polizia gehiegikerien legea

IRUÑEA • Espainiako Auzitegi Konstituzionalak eskuin muturreko taldeen eta segurtasun indarrek eragindako indarkeriaren biktimen Nafarroako legearen aurka ebatzi du. Epaiaren arabera, Aitortza eta Erreparazioerako Batzordearen helburua litzateke delitu izan daitezkeen gertakariak zehaztea eta ikertzea, eta hori «Konstituzioaren aurkako» dela ohartarazi du. Epaiak guztiak ez datoz bat iritzi horrekin, halere, eta lauk boto partikularra eman dute.

11,3

TAfallako Saihesbidea Egiteko Saila, MILIOI EUROTAN

Nafarroako Gobernuak Tafalla hegoaldeko saihesbidea egiteko proiektua onartu du: 11,3 milioi euroren aurrekontua izanen du obrak. Datorren urtean hasiko dituzte lanak, eta hamabost hilabete iraunen dute. Helburua da NA-132 errepedeko zirkulazioa hirigunetik ateratzea.



«Parlamentua alderdiaren alde erabili du Ainhoa Aznarezek; zigor gisa proposatu du parlamentuko abokatu nagusia kargutik kentzea»

Laura Perez
Ahal Dugu-tik kanporatutako parlamentaria

C hepatitisak jotako herritarren bi heren sendatu dira botika antibiralak hartuta

IRUÑEA • Nafarroan, ia 1.300 pertsonak hartu dituzte C hepatitisaren aurkako botika antibiralak 2015. urtean gaitz horren aurkako plana martxan jarri zutenetik. Herraldean, zehazki, gaixotasunak jotako herritarren bi heren sendatu dira botika horiek hartuta. Nafarroako Gobernuak eta hepatitisak jotako pertsonen Ateha elkarteak «ontzat» jo dituzte lortutako emaitzak. Gobernuak uste du datozen urteotan C hepatitisak duten guztiak jaso ahal izanen dutela tratamendua.

«Justizia patriarkalaren» aurka

Hilabeteroko elkarretaratzea egin dute Astelehen Lilak elkarteko kideek asteon, Iruñeko Gazteluko plazan. Indarkeria matxistaren aurkako aldarriarekin bat egin du «justizia patriarkalaren» kontrakoak. Zehazki, Juana Rivasen aurkako epaia salatu dute. Bost urteko espetxe zigorra ezarri diote Granadako (Espainia) epaileek, behin-behinean, eta, gainera, sei urterako kendu diote seme-alaben zaintza. Gizona tratu txarrengatik salatu zuten Rivasek. Bere auziko epaileek ez dute kontuan hartu, ordea. IDOIA ZABALETA/FOKU

MUSIKA

BERA Txamukos.
● Gaur, 00:00etan, Altzateko plazan.

BERA Labasu eta Atom Rhumba.
● Bihar, 00:00etan, Altzateko plazan.

BERA MICE.
● Igandean, 00:00etan, Altzateko plazan.

BURLATA Noa Voll Damm & The Hell Drinkers.
● Gaur, 22:30etan, udal parkean.

BURLATA Lindsay Beaver & The 24th St. Wailers.
● Gaur, 00:00etan, udal parkean.

BURLATA Del Toro Blues Band.
● Bihar, 22:30etan, eta igandean, 13:00etan, udal parkean.

BURLATA Shirley Davis & The Silverbacks.
● Bihar, 00:00etan, udal parkean.

BURLATA Blues Morning Singers.
● Hilaren 10ean, 00:00etan, udal parkean.

BURLATA Fucking Feelgood.
● Hilaren 11n, 22:30an, parkean.

BURLATA The Soul Jacket.
● Hilaren 11n, 00:00etan, eta hilaren 12an, 13:00etan, parkean.

FALTZES El Desvan.
● Bihar, 23:00etan, Foruen plazan.

IRUÑEA Last Infusion.
● Gaur, 20:00etan, Zentral aretoan.

IRUÑEA Lazy Daisy Band.
● Asteazkenean, 21:00etan, Ziadadelan.

IRUÑEA DJ Mom.
● Ostegunean, 20:00etan, Ziadadelan.

IRUÑEA No More Blues.
● Hilaren 10ean, 20:00etan, Burgoen plazan.

IRUÑEA Anne Etxegoien.
● Hilaren 14an, 21:00etan, Ziadadelan.

IRUÑEA Maybe Martin eta Belen Maya.
● Hilaren 21ean, 21:00etan, Baluartean.

IRUÑEA Estrella Morente.
● Hilaren 22an, 21:00etan, Baluartean.

IRUÑEA Tomatito eta Nafarroako Orkestra Sinfonikoa.
● Hilare 24an, 21:00etan, Baluartean.

Gure proposamena ● Baztan



Aukeran taldearen 'Fusioak' Elizondon

Nafarroako Gobernuak prestatutako Kultur zikloak dantza eramanen du gaur Elizondoko karriketara: Aukeran konpainiako kideek –irudian, *Maurizia* ikuskizunaren emanaldi batean– *Fusioak* izenburuko lana aurkeztuko dute herriko plazan, 20:30ean hasita. Euskal dantzen eta nazioarteko bertze erritmo eta folkloren arteko nahasketaren emaitza da Aukeran taldearen obra. Edu Muruamendiarezek zuzendurik, ordubeteko ikuskizuna prestatu dute ikusleak ukitzeko eta hunkitzeko. KARLIS MEDRANO

LIZARRA Trikitiens.
● Gaur, 00:00etan, Santiago plazan.

LIZARRA Zartako-k, Penadas por la ley eta Kometa.
● Gaur, 00:00etan, txosnetan.

LIZARRA Ira, Flitter eta Etsaiakeroak.
● Bihar, 00:00etan, txosnetan.

LIZARRA Doctor Deseo.
● Asteartean, 23:15ean, Foruen plazan.

LIZARRA Efecto Pasillo.
● Asteazkenean, 23:15ean, Foruen plazan.

URZAINKI La Niña Hilo, The Grooves eta Shirley Davis & The silverbacks.
● Igandean, 17:00etan, plazan.

BERTSO SAIOAK

BERA Uxue Alberdi eta Ander Iturri.
● Gaur, 12:00etan, Udaletxe plazan.

ETXARRI ARANATZ Bertso afaria: Uxue Alberdi eta Eneko Lazkoz.
● Asteartean, Karrikestu elkartean.

LEITZA Nerea Elustondo, Joanes Ilarregi, Xabat Ilarregi, Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze eta Julio Soto bertsolariak.
● Hilaren 13an, 18:00etan, plazan.

LIZARRA Bertso bermuta: Aimar Karrika eta Aitor Sarriegi.
● Igandean, 12:00etan, karriketan.

DANTZA

BAZTAN Aukeran: *Fusioak*.
● Gaur, 20:30etan, Elizondon.

IRUÑEA Harresia Dantzan: La Glo Zirko eta C9.80, eta La Banda.
● Gaur, 21:00etan, Ziadadelan.

IRUÑEA Bazen behin...harresi magiko bat.
● Bihar, 21:00etan, O plazan.

ANTZERKIA

ATARRABIA Trapu Zaharra: *Sefini*.
● Hilaren 16an, 20:00etan, Udaletxe plazan.

ATARRABIA Trokolo Teatro: *Burutik jota*.
● Hilaren 30ean, 20:00etan, Udaletxe plazan.

BERRIOBEITI Amico Teatro: *On the Beach*.
● Gaur, 18:30ean, frontoian.

ERRIBERRI Irrolei Teatro: *Como las cenizas para el fuego*.
● Gaur, 20:00etan, Errege jauregian.

ERRIBERRI Teatro Clasico de Sevilla: *Hamlet*.
● Gaur, 22:00etan, Cava espazioan.

IRUÑEA Kicirke: *Comediante*.
● Gaur, 19:00etan, Iturramako bulebarrean.

IRUÑEA Shakti Olaizola: *Baldin bada*.
● Asteartean, 20:00etan, Ziadadelan.

IRUÑEA Amer y Africa: *Enva*.
● Asteazkenean, 20:00etan, Ziadadelan.

ZINEMA

ATARRABIA Últimas horas en La Habana.
● Hilaren 26an, 22:00etan, Bakearen parkean.

ATARRABIA Handia.
● Hilaren 26an, 19:30etan, Bakearen parkean.

BURLATA Los Reyes del K.O.
● Ostegunean, 19:30etan, udal parkean.

IRUÑEA Mi tío.
● Gaur, 20:00etan, Kondestablearen jauregian.

IRUÑEA Zikoinak.
● Ostegunean, 22:00etan, Maiteminduen parkean.

IRURTZUN La guerra del planeta de los simios.
● Asteazkenean, 22:00etan, Foruen plazan.

BERTZELAKOAK

ATARRABIA Dabitxi Zirkua: *Los enviados*.
● Ostegunean, 22:00etan, Udaletxe plazan.



Edurne Elizondo Iruñea

Astronavarra Sareak 180 bazkide inguru ditu. Haietako bat da Javier Prat (Tutera, 1959). Aspaldi hasi zen zeruari behatzen. Hainbat elkartetako kide izan da, eta Astronavarra Sareko presidente da orain.

Noiz eta nola jarri zenuten mar-tan sarea?

Elkartean bat egin dugu beti astronomiaren esparruan aritu garen jende askok. Izan gara bertze hainbat elkartetako kide, baina, azken urteotan, nahiago izan dugu gure kabuz aritu. Ez genuen gure gain hartu nahi elkarte bateko kide izateak ekartzen dituen lanen ardura, eta denbora aprobetxatu nahi genuen maite dugun hori egiteko, zeruari behatzeko, alegia. Kontua da duela lau urte aukera sortu zela Espainiako Astronomia Kongresua hartzeko, eta, hori egin ahal izateko, elkar-tea sortzeko urratsa egin behar genuen.

Kongresua hartu zenuten, azkenean, duela bi urte.

Bai. Kongresu hori astronomo amateurrena da, baina profesionalak ere parte hartzen dute, gure esparruan amateurren eta profesionalen arteko marra ez baita zurruna. Astronomo amateur batek profesionalentzat baliagarria den lana egin dezake bere teleskopioarekin. Elkarlana bada.

Iruñeko planetarioarekin ere aritzen zarete elkarlanean?

Bai. Aretoren bat behar dugunean, badugu lehentasuna; aldi berean, planetarioak zeruari so egiteko ekitaldiak antolatzen dituenean, gure laguntza izaten dute. Planetarioan ezin da zerua zuzenean begiratu; guk gure baliabideak jartzeko ditugu haien esku, zeruari behatzeko ekintzak prestatzen dituztenean. Girgillaoko behatokiarekin ere aritzen gara elkarlanean.

Zaletasun handia dago?

Bai, bada. Iruñean pare bat elkarte gara. Gureak 180 bazkide inguru ditu. Nik uste dut jakin-mina badugula gizakiok. Gainera, eklipse baten gisako fenomenoak gertatzen direnean, jakin-min horrek gora egiten du. Jendea kezkatzen hasten da inguratzen duen horrekin. Guk antolatzen ditugun ekinaldietara jende anitz etortzen da.

Abuztuan Pertseidak ikus daitezke; hilabete ona da zeruari so egiteko?

Abuztuan gertatzen dena da jendea oporetan dagoela, eta eguraldiak ere laguntzen duela. Horrek ekartzen du jendea errazago ateratzea etxetik zeruari so egite-



IDOIA ZABALETA / FOKU

«Toki ezin hobea da Erronkari Pertseidak ikusteko»

Javier Prat • Astronavarra Sareko presidentea

Duela astebeteko eklipseari Lerindik egin zioten so Astronavarra Sareko kideek. Izanen da, abuztuan, zeruari behatzeko aitzakia gehiago. Elkarteko buru Javier Pratek hainbat planeta ikusteko aukera nabarmendu du.

ko. Baina neguan, adibidez, lehenago iluntzen du, eta, aukera dago, beraz, lehenago hasteko zeruari behatzen.

Pertseiden fenomenoa da gehien ezagutzen ditugunetakoa bat?

Bai, zalantzarik gabe. Kontua da Lurrak, bere orbitan, gasez eta hautsez betetako eremu bat zeharkatzen duela, eta partikula horien arrastoak dira izar iheskor gisa ikusten ditugunak. Berez, ez dira ikusgarrienak. Abenduan ditugu Geminidak, eta zoragarriak dira. Atmosfera, gainera, egonkorragoa da abenduan, eta hobeki ikus daitezke. Kontua da negua dela. Abuztuan errazagoa da ateratzea. Hilabete honetan, gainera, bada bertzerik ikusteko.

Zer gehiago dago ikusteko?

Planetak mugituz doaz. Izarrak ez. Ondorioz, abuztuan, Venus

ikus dezakegu ilunabarrean; Jupiter ere bai, bai eta haren sateliteak ere. Laster Marte eta Saturno ere ikusiko ditugu. Planetak eskura izanen ditugu hilabete honetan.

Zeruari so egiteko, bada bereziki egokia den tokirik Nafarroan? Pertseidak ikusteko, adibidez, kontua da ilun dagoen toki batera

«Hagitz zaila izanen da izaki adimendunak aurkitzea; arazo bat distantzia da, eta bertze bat, komunikatzeko zailtasuna»

joatea. Erronkari, adibidez, toki ezin hobea da Pertseidak ikusteko. Iruñean, noski, zailagoa da ikustea, hiriko argien ondorioz. Horregatik erraten dugu beti hiritik kanpora joan behar dugula izarrei so egiteko, argiek eta erai-kinet traba ez egiteko.

Zein da egunik onena Pertseidak ikusteko?

Uztailaren bukaeratik jada ikus daitezke, abuztu bukaerara arte. Lurra material gehien dagoen arazo izanen da ikustea; hau da, abuztuaren 12tik 13ra. Guk 11n antolatuko dugu irteera bat zeruari so egiteko. Oraindik ez dakigu zehazki non egingen dugun. Arbaiunen egin izan dugu, baina jende anitz etortzen da, eta, ondorioz, ez da tokirik egokiena.

Teleskopioa beharrezkoa da?

Pertseidak ikusteko, ez. Guk erabiltzen ditugu, aprobetxatzen dugulako aukera zeruari so egiteko. **Zer behar da urratsak egiten hasteko?**

Gure aholkua beti da hasieran prismatikoak baliatzea, gehienez

ere. Batzuek sekulako teleskopioak erosten dituzte, hasi bezain pronto, eta, azkenean, armairu batean gordeta uzten dituzte. Ez da horrelakorik behar. Hasteko, proposena da egun eskura ditugun sakelako telefonoko aplikazioak erabiltzea, zerua ezagutzen hasteko. Eskuratzen ahal dugu zeruaren mapa bat, konstelazioak ezagutzeko. Prismatikoekin has gaitzke ilargiari behatzen. Eta gurearen gisako elkarte batekin bat eginez gero, noski, gure baliabideak baliatzen ahal dituzte. Zaletasuna galtzen ez badute, teleskopioa eros dezatela.

Nafarroan, hainbat udal ere ari dira urratsak egiten astroturismoa bultzatzeko. Bide bat zabalitzen ari dira?

Bai. Iaz Lerinen egin zituzten jardunaldiak. Guk parte hartu genuen, eta jende anitzek egin zuen bat. Argi kutsaduraren aurkako urratsak egiten ari dira Lerinen eta bertze hainbat herritan. Kontua ez da kale argiak kentzea, adibidez, baizik eta kale argi eragin-korrak erabiltzea. Anitzek gora zabalitzen dute argia, eta horrek sortzen du kutsadura, eta gauez ikusi nahi duenari ez dio laguntzen. Bide interesgarri bat ari dira zabalitzen Lerinen eta Erronkarin, bertzeak bertze.

Hemendik at, Martetik etorri diren azken berriek diote ur likidoa aurkitu dutela. Halako berriek laguntzen dute zaletasuna zabalitzen?

Bai, zalantzarik gabe. Jakin-mina dugu, eta horregatik saiatzen gara Marteri buruz gehiago jakiten. Halere, hagitz zaila izanen da izaki adimendunak aurkitzea; distantzia da arazoetako bat, eta, bertze, zalantzarik gabe, komunikatzeko zailtasuna.

Zeruari so egiten dionean, halere, izaki adimendunak aurkitzeko aukera du gizakiak buruan?

Idea hori hor dago, jakin-mina badugulako. Baina hain da zaila... Distantziak hain dira handiak... Gure galaxian, bakarrik, 200.000 milio izar dago. Neurriak sekulakoak dira. Nik uste dut bertze izaki batzuk egon badaudela, baina komunikatu ahal izatea hagitz zaila izanen da.

Abuztua zeruari so emanen duzue zuek. Non izanen zarete, zehazki?

Hilaren 9an eta 10ean, adibidez, Uxuen izanen gara. Hitzaldia eskaini eta izarrei behatuko diegu. Hilaren 17an, berriz, Irunberrin izanen gara. Interesa duenak www.astronavarra.org helbidean aurkituko du gure jardueren buruzko informazioa.